

## Familia bat etxegabetu dute Deustun

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 31/03/2025

AZET etxebizitza sindikatuak salatu duenez, bide judiziala zabalik egon arren, etxegabetzea familiari aurretik ezer notifikatu gabe burutu dute.

Atzo familia bat etxegabetu zuten Deustun(Bilbo), adin txiki bat tartean. AZET etxebizitza sindikatuak salatu duenez, bide judiziala zabalik egon arren, etxegabetzea familiari aurretik ezer notifikatu gabe burutu dute. "Aski da! Pobreon kontrako gerra gelditu!" adierazi du sindikatuak.

Pasaden astean, beste **hamahiru pertsona etxegabetu zituzten Abandon**(Bilbo), tartean bi adin txiki eta haurdun dagoen emakume bat. AZET etxebizitza sindikatuak salatu zuenez, iruzur baten biktima izan ziren, eta ez zuten etxegabetzearen berri izan polizia etxean agertu zen arte.

---

<https://eh.lahaine.org/familia-bat-etxegabetu-dute-deustun>